

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua,
Nafarroako Gobernuko Euskarabidearen burua,
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatua,
euskaltzainak,
Patxi Uribarrenen etxeokak,
karmeldarrak,
KARMEL aldizkariko adiskideak,
Aramaioko alkatea eta zinegotziak,
aramaioarrak,
jaun-andreak,

Arratsaldeon.

Oraindik gogoan dut mila bederatziehun eta hirurogeita hamabigarren urteko irudia, Bilbon, Karmeloko gau-eskolan. Hizlari, Patxi Uribarren eta Karmel Etxebarria. Entzuleen artean, orain hitz egiten ari zaizuen. Gaia, euskararen irakaskuntza antolatzeko modua. Hitz laburrak entzun eta gero, bakoitza bere ikasgelara, Xabier Kintana izeneko batek UKRONIA izenburuarekin idatziriko ipuina irakurtzera, ariketa legez.

1984. urtean, aldiz, KARMEL aldizkariaren idazleek bilera egin genuen Zornotzako Larrean. Horra nire bigarren irudia Patxi Uribarrenena, Julen Urkizaren zuzendaritzapean.

Gero, etengabeko harremanak izan dira bion artean, eta, argi dezadan, beraren ingurukoekin ere: Luis Baraiazarrarekin eta *Karmel* aldizkariaren beste idazleekin. Azpimarra ditzadan, orobat, Bizkaiko Foru Aldundian

egin duen itzultzaile-lan bikaina, eta bere zereginak lexikografiaren arloan, BOSTAK BAT taldearen barruan.

Patxi, bestalde, euskal idazle arabarren eta aramaioarren zerrendan sartzen da bete-betean, lurralde horrek euskararekin duen konpromisoa berretsiz.

Ezin bazterrean utzi, nolana ere, Patxiren jokabide etikoa eta haren kristau-bokazioa, bi-biak egoki uztartzen jakin baitu gure Patxik.

Euskaltzaindiak aspalditik ezagutzen du Patxi Uribarren euskaltzain urgazlea. Orain bera aitortu egiten du eta euskaltzain oso bihurtu, ziur gaudelako haren ekimena eta gizalegea, onuragarriak ez ezik, eredugarriak ere izango direla Euskaltzaindiarentzat eta euskalgintzarentzat.

Mila esker, amaitzeko, Aramaioko herriari, betidanik euskarari, euskal kulturari eta Euskaltzaindiari eskaini eta eskaintzen dion harrera gozo bezain beroarengatik. Beste horrenbeste Aramaioko parrokiari, gaur eliza eder hau ekitaldia egiteko uzteagatik.

Orain joan bitez Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzain osoak, eta ekar bezate guregana, sarrera-hitzaldia egin dezan, Patxi Uribarren jauna.

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an